

AKTIBATU PROGRAMA. GURE EKIMENAREN BALORAZIOA ETA PARTE HARTZEA:

IRAKASLEGAIK ETA EUSKARA

Gure ekimenean HEFA II eraikineko Lehen Hezkuntzako Graduko 1., 2. eta 3. mailako ikasleekin egin ditugu talde eztabaidak. Horretarako, hiru irakaslek 8-10 ikasleko taldeak hartu ditugu, eta hizkuntza ideologiaz, hizkuntza mudaz eta hizkuntzaren didaktikaz galdetu diegu. Eztabaidaren helburua euskararen erabilera izan da, baita hizkuntza kontzientzia piztea ere, unibertsitatean haien lagun-taldeetatik kanpo lagun berriak egiteko espazio bat dela kontuan hartuta eta irakaslegaiak direla jakinda, zein hizkuntza hautu egiten duten, zergatik eta zenbaterainoko eragina duen haien erabakiak jabetze aldera.

Emaitzak oso positiboak izan dira, batetik, ohiko lagunekin ez ezik, maiz aritzen ez diren ikaskideekin euskarari buruz euskaraz aritzeko tartea hartu dutelako, eta horrek neurri batean haien irakasle rolaekin hausnartzeko aukera eman dielako.

Ikasle kopuruari dagokionez, guztira 217 ikaslerengana heldu gara (1. mailan 74 ikasle; 2. mailan 93; 3. mailan 50) eta gehienek modu aktibo batean parte hartu dute ekimenean.

Guztira Lehen Hezkuntzako Graduko 1. mailakoekin 2 orduz aritu gara gai honen bueltan, 2. mailakoekin 3 orduz eta 3. mailakoekin beste 2 orduz. Giroa sortu eta eroso senti zitezten, gure asmoa ez zen denbora muga bat jartzea, baina gaiak eztabaida sakonerako eman zuenez, talde batzuekin denbora luzeagoz aritu ginen. Eztabaida guztiak grabagailuz grabatu genuen, haien alde aurretiko baimena izanda. Horrela, HEFA II fakultateko irakasleekin partekatu nahi dugu gure ikasleen hizkuntza erabilera eta iritziak, usteak eta ohiturak zeintzuk diren. Beraz, AKTIBATU programak ikasleen euskara erabilera eta kontzientziazio kanpaina hasteko balio izan digu, eta hurrengo urratsean fakultateko irakasleengana ere iritsi nahi dugu, ikasleen hizkuntza hautuaren eta erabileraren garrantziaz jabetu daitezen eta ikasleen hizkuntza gaitasuna neurtzeko baliabideak eskuratu ditzaten.